

PDK-KO GERRILARIAK IRAKEKO KURDUEN ESQUALDEKO BIGARREN HIRI NAGUSIAREN ATARIRA IRITSI DA

Milaka kurduk ihes egin dute Sulaimaniatik Masud Barzaniren gerrillaren beldur

Irango mugetara doaz Sulaimaniatik ihes egin duten kurduak, eta abuztuaren 31n Irakeko Armadaren laguntzarekin Kurdistango Alderdi Demokratikoaren (PDK) esku erori zen Irbil hiritik ihes egindako errefuxiatuekin bat egin dute.

Agentziak / Amman

MASUD BARZANIREN gerrillak aurrera egin zuen atzo Sulaimaniarako bidean, Irakeko Estatuan dagoen Kurdistango zatia- ren bigarren hiri nagusia eta es- kualde osoa konkistatzeko saioan. Jalal Talabaniren Bata- sun Patriotikoa (UPK) PDKren erasoei aurre egiteko gaitasunik gabe agertu da Iranen laguntza- rik gabe.

Eskualde horretatik Jordania- ra iritsitako berrien arabera, Barzaniren gerrillariak, tanke- kin eta artilleria astunarekin, Degala herria eskuratu zuten atzo, Irbilgo hego-ekialdean da- goen puntu estrategikoa, UPKren defentsa ahulak hautsi eta gero. Talabaniren gizonak Irango mu- getara ihes egin behar izan zuten gainera.

PDK-k igorritako komunikatu baten arabera, gerrilla horrek herenegundik Koi Senjak herria kontrolatzen du, Irbildik 40 ki- lometro hego-ekialdera. Aibat Sultan mendietako zubi estrate- gikoa ere euren kontrolpean har- tu dute eta Dokan-go presa har- tzear zeuden. Oraindik UPKren kontrolpean dagoen urtegi ho- rrek ura eta argindarra ematen dizkio Irbil hiriari.

Bestalde, nahiz eta UPK-k sa- latu duen Irakek laguntza mili- tarra eman diola PDKri, gerrilla horrek ukatu egin zuen hori atzoko komunikatuan. William Perry EEBBetako Defentsa idaz- kariak ere adierazi zuen ez da- goela horren frogarik.



Haur kurdu batzuk Irakeko iparraldeko Kani Masi herrian.

REUTER

Barzanik Irakeko kurduen es- kualde osoaren kontrola hartze- ko ekindako operazio handi ho- rrek errefuxiatu andana eragin du Sulaimanian, hiri hori PDKren esku erortzea denbora kontua dela pentsatzen baitute. Izan ere, Barzaniren gerrillariak soldadu irakiarak batu ez ba- zaizkie ere, abuztuan lagundu

zietenean tankeak eta artilleria astuna ere eman zizkieten, eta armetan duten nagusitasunaren ondorioz erraz gainditu dituzte UPKren defentsak.

Turkiaren planen aurka • Kur- duen arteko borrokei batu egin behar zaie eskualde horretan Kurdistango Langileen Alderdiko

(PKK) gerrillariak erasoei aurre egiteko Turkiak eraiki nahi duen *segurtasun lerroak* eragindako krisia. Plan horrek eskualdeko herrialde guztien gaitzespena jaso du, baita Iraken etsaia ere, eskualdearen egonkortasu- naren aurkako mehatxutzat jo baitute hori.

Mendebaldeko herrialdeek ere

kritikatu dute Turkiaren plan mi- litarra, nahiz eta joan zen astean Washingtonek oniritzia eman zion Tansu Çiller Atzerri ministroak aurkeztutako plan- gintzari. Irakek, herenegun, An- kararen asmoari aurre egingo ziola iragarri zuen, baina ez zuen zehaztu Armada erabiliko duen. X

Palestinar eta israeldar ordezkariak negoziatzeari berrekin diote

Netanyahu Washingtonera joan da Bill Clintoni Arafatekin hitz egindakoa azaltzera

Agentziak / Jerusalem

JASSER ARAFATEK eta Benja- min Netanyahuk joan zen astean egin zuten bileraren ondotik le- hen aldiz bildu ziren atzo pale- stinarrak eta israeldarrak, eta Go- goetarako Batzorde Mistoa izena jarri diote Saeb Erekat palestina- rrak eta Dan Shomron israeldar- rrek zuzentzen duten bilera honi. Ez zen ordea erabaki garrantzi- tsurik hartu. Hartutako eraba- kien artean, azpi-batzordeak gai bakoitzean erabaki zehatzak hartu beharko dituela izan zen nagusia. Dena den, erabaki guz- tiak Jasser Arafaten eta Benja- min Netanyahuren balekoa jaso beharko dute martxan jarri au- rretik.

Batzorde honek erabaki zuen

politika mailan palestinarrek egindako eskakizunak aztertuko dituela. Atzo hitzartutakoaren arabera, batzordeen artean sor- daitezkeen ika-mikak Netanya- huk eta Arafatek aztertuko di- tuzte. Eskaera nagusiak hiru puntutan zehaztuko direla ere zabaldu zen. Hautetako batzuk israeldarrek Gazan eta Zisjorda- nian ezarritako blokeoa altxatze- ko eta Hebrongo hiritik milita- rrak behin-betiko erretiratzeko eskatzen dutenak dira.

Hebron hiria, sinatutakoaren arabera, Israelgo Armadak utzi behar zuen zazpigarren hiria da. Kolono juduek eta Alderdi Nazio- nal Erlijosioak (MAFDAL), Ne- tanyahuren garaipena ahalbide- tu zuten bi taldeek, Hebron hiri- tik irteteko aurkako jarrera azal-

du dute. Ideologia eta segurtasun arrazoiak argudiatu dituzte kanporatzea galarazteko. Gaine- ra, Netanyahuk erretiratze honen aurkako jarrera azaldu du jen- daurrean.

Era berean, batzorde misto ho- nek erabaki zuen Aginte Nazional Palestinarrak eta Gobernu labo- ristak hartutako akordioak hasiera-hasieratik aztertzen has- tea, eta hala egin zuten.

Gogoetarako batzorde misto honen azken helburua Zisjorda- niarako autonomia akordioaren puntuak praktikan jartzea da. Akordio hau 1995eko irailaren 28an sinatu zen eta Oslo 2 izenez ezagutzen da. Batzordeak Gaza- rako eta Zisjordaniarako erabaki tinko bat hartu beharra dauka, indarrean dagoen autonomiak



Dan Shomron eta Saeb Erekat, israeldar eta palestinar ordezkarietako buruzagiak, atzo Jerikon.

AFP

1999an galduko baitu balioa.

Bestalde, Israelgo lehen minis- troa, Benjamin Netanyahu, Was- hingtonera joana da Bill Clinton EEBBetako lehendakariari Ara-

fatekin izandako bilerari buruz argibideak emateko. Azken hiru hilabeteetan bigarren aldia da Netanyahu Clintonekin biltzen dena. X